

1. HE

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

| IDATZIZKO AZTERKETA | | Iraupena |
|------------------------|--|----------|
| Irakurmen-proba | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: gutxienez bi testu eta bi ariketa. • <u>Ezaugarriak</u> Testuak luzera desberdinekoak eta era askotarikoak izango dira. Testuen luzera, guztira: 500 hitz gehienez Gutxienez 10 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean. <u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, egoerak identifikatu, loturak egin, taulak osatu, hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), paragrafoak ordenatu eta abar. | 30 min |
| Idazmen-proba | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: bi ariketa, gai eta diskurtso-tipologia askotarikoak. • <u>Ezaugarriak</u>: <u>1. ariketa</u>: gutxienez 50 hitz idatzi beharko dira. Argibideak edo informazioa eman/helarazi/eskatu (mezu elektronikoko laburra, oharra, iragarkia, bilera-deia...) Euskarria: inprimakia. <u>2. ariketa</u>: gutxienez 100 hitz idatzi beharko dira. Interesak, erreakzioak, gertaerak, iritzia, informazioa eman/eskatu/egiaztaatzeko eskutitz informala, kontakizun laburra, deskribapena... Aukeran, euskarri bat izan dezakete: e-mail bat, argazki/plano/mapa bat... | 60 min |

| AHOZKO AZTERKETA | | Iraupena |
|------------------------|---|---------------------------------|
| Entzumen-proba | Entzumena mintzamenarekin batera ebaluatuko da, berariazko entzumen-probarik egin gabe. | Mintzamen-probak irauten duena. |
| Mintzamen-proba | <ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: Saio bakoitzean bi azterketari arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Aldez aurretik ez dute ezer prestatu behar izango. Bikoteak osatzeko azterketari nahikorik ez badago, bakarrik geratu den azterketariak aztertzaile batekin egingo du bigarren ariketa. • <u>Ezaugarriak</u>: <ul style="list-style-type: none"> 0. <u>Identifikazioa</u>: (Ez da ebaluatuko). Ariketei ekin baino lehen, azterketariak izen-abizenak eta NAN zenbakia esan beharko dituzte. 1. <u>ariketa</u>: (Bakarrizketa. Iritzia eman). Argazki/grafiko/testu laburrean ikusitakoaren aurrean iritzia eman. Euskarria: gai beraren inguruko bi fitxa desberdin. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 3 min gaiaz iritzia emateko. Azterketari batek bukatzen duenean, besteak ekingo dio. 2. <u>ariketa</u>: (Bat-bateko elkarrizketa). Argazki bidez, gai bati buruzko hainbat aukera/egoera desberdin. Adostasun/akordio batera iritsi behar diren egoera bat aurkeztuko zaie. Helburua: negoziatu, informazioa trukatu. Euskarria: fitxa bakarra biei. Gai/egoera bat + argazki bidez, horri buruzko zenbait aukera/egoera. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 6 min bien artean elkarrizketan jarduteko. Adierazten diren denborak gutxi gorabeherakoak dira. Edonola ere, aztertzaileek erabakiko dute azterketak zenbat iraungo duen. | 15-20 min |